

**BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA**  
**EUSKARA ELKARTEEN AZPIBATZORDEA**

Batzarraren AKTA.

2017ko urtarrilaren 27a – 12:00 h

BERTARATUAK

**Bilboko Udala**

Koldobika Narbaiza (Euskara eta Hezkuntzako zinegotzia, presidenteordea)

Jone Unzueta (Euskara eta Hezkuntzako zuzendaria)

**Euskara-elkarreak**

*Berbaizu.* Jon Intxaurre

*Euskaltzaleen Topagunea.* Aritza Escandon

*Palanka taldea.* Jon Iturriaga

*Uztarri.* Ainara Aretxabaleta

*Zorrotzako euskal txokoa.* Aitor Marin

**Ezin etorria alde aurretik adierazi dute**

*Asapala*

*Euskal Herrian Euskaraz*

*Iralako Euskal Txokoa*

*Lizardi*

*Zenbat Gara*

**Idazkaritza teknikoa**

*Bilbao Metropoli-30.* Idoia Postigo

*Labayru Fundazioa.* Lander Solozabal

## GAI-ZERRENDA

### 1.- BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEAREN ETA AZPIBATZORDEEN AURKEZPENA.

Udal ordezkariak hauek azaldu dituzte:

- Bilboko Euskararen Aholku Batzordea **2016an sortu** zela eta orain arte **hiru bilera** egon direla.
- Batzorde hori **nortzuek osatzen duten** eta zeintzuk diren bere **egitekoak**.
- Erabaki dela **hiru azpibatzerde** ere sortzea eta martxan jartzea: **euskaltegiarena, hedabidearena eta euskara-elkartea**.

### 2.- 2017KO AZPIBATZORDEEN SORRERA, HELBURUAK ETA OSAERA.

Bilbao Metropoli-30 elkarteko Idoia Postigok azaldu du hemendik aurrera **Bilbao Metropoli-30** elkartea eta **Labayru Fundazioa arduratuko** direla **Batzordea dinamizatzeaz eta prozesua estrategikoki koordinatu eta kudeatzeaz**.

Labayru Fundazioko Lander Solozabalek hauek azaldu ditu:

**Hiru azpibatzerdeak eta Aholku Batzordea elkarrekin** joango dira aurrera lanean, **bide paraleloetan**: azpibatzerdeetan egiten diren ekarpenak eta balorazioak Aholku Batzordera eramango dira, eta han erabakitzen direnak eramango dira berriro ere bueltan azpibatzerdeetara.

Azpibatzerdeetarako **lan-proposamena 2017rako: lau helburu eta lau bilera**.

- Lehen bileran (2017ko urtarrila): Bisio estrategikoa definitu eta konpartitu.
- Bigarren bileran (2017ko otsailean): Helburuak zehaztu
- Hirugarren bileran (2017aren erdian): Ekintzak proposatu
- Laugarren bileran (2017aren amaieran): Ebaluatu eta neurtu

### 3.- AHOLKU BATZORDEAK LORTU BEHARREKO HELBURUEN BISIO ESTRATEGIKOA AZALDU.

Helburu hau lortzeko, **lan-dinamika zehatz bat** proposatu da: batzordekideek, irudi iradokitzaileak erabilia, adieraziko dute nolako egoera bisualizatzen duten etorkizunera begira, euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegitik, eta euskara-elkarteen errealitateak abiatuta. Argazkiak edo irudiak norberak aukeratu ondoren, taldeka jarri dira azalpenak emateko eta, azkenik, taldeetan esandakoa azaldu da denon aurrean. Elementu hauek agertu dira dinamikan:

Kultur guztiak biltzeko Gailurra lortuta Nortasuna Elkarlana (elkarlana, udala, eragileak...) Ezinezkoa posible bihurtu Euskararen gaztetasuna Tradizioa Bilboko kulturaren Normalizazioa proiektuetan, lanetan Jendea bateratzeko, erakartzeko Esperientzia positiboa	Mugarik ez Integraziorako tresna Komunikaziorako tresna Elkarbizitzarako tresna Ahaleginak Denok batera Euskalgintza Bilbon Teknologiari egokitu Disfrutatzeko elkarrekin
---	---

Lortutako osagaiak zeintzuk izan diren eta zer nolako garrantzia izan duten kontuan hartuta, **hauek izango dira Bilboko Euskararen Aholku Euskara-elkarteen Azpibatzerdearen lana gidatuko duen etorkizuneko bisioaren ezaugarriak:**

- **Integrazioa:** kultur guztiak biltzeko, elkarbizitzarako tresna, jendea bateratzeko, denok batera, komunikaziorako tresna ...
- **Elkarlana:** ahaleginak, gailurra lortuta, ezinezkoa posible bihurtu ...
- **Nortasuna:** Euskalgintza, tradizioa Bilboko kulturaren, euskararen gaztetasuna, teknologia...
- **Esperientzia positiboa:** , disfrutatzeko elkarrekin ...

#### 4.- GALDERAK ETA IRADOKIZUNAK

Adostu egin da azpibatzerde honen bilerak hemendik aurrera ostiraletan izango direla, 12:00etan, eta La Bolsa eraikinean (Pilota kalea, 10). Bileren iraupena ordubeteko edo ordu eta erdikoa izango da. Aukera dago gaiarekin lotutako beste erakunde edo eragile batzuk ere gonbidatzeko.

Bilbon, 2017ko urtarrilaren 27an

BILBOKO EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEKO IDAZKARIA